

“Atxondon bizitzen jarraitu gura dugu. Mesedez, ez gaitzatela beste herriren batera bidali”



Axpeko aterpetxean bizi ziren zazpi migratzaileek, Atxondo Harrera Herrikoen laguntzagaz, kanpamentua muntatu zuten udaletxe azpian orain astebete. Harrezkero, bertan dau-de bizitzen eta, ANBOTOrri aitortu diotenez, bertan jarraituko dute Atxondoko Udalaren erantzun bat izan arte. • 2



“Lodifobia biolentzia estrukturala da”

Durango • Laura Galar Pérez de Onraita Haur Hezkuntza-ko hezitzailea eta lodifobiaren kontrako aktibista da. Asteon lodifobiari aurre egiteko tailerrak hasi ditu Durangoko Andragunean. Tailerretan izena emateko epea zabalik dago • 4

Metalgintzako grebak "babes handia" izan duela diote sindikatuak

Durangaldea • Metalgintzan hiru eguneko greba deialdia egin dute. Atzokoa izan zen mobilizazioen lehenengo eguna eta deialdiak Durangaldean izan duen erantzunagaz pozik agertu ziren sindikatu deitzaileak. Gestamp Bizkaia eta CIE taldeko enpresetan izandako geldialdiak nabarmendu zituen LAB sindikatuak. • 10





Ezkerretik hasita, Hamza, German, Soufiane, Yassin, Sadik eta Erick.

“Guk Atxondon bizitzen jarraitu gura dugu, eta kalean bada ere hemen jarraituko dugu”

2018tik Axpeko aterpetxea Atxondo Harrera Herriarren egoitza izan da. Orain ezin dira etxera sartu eta udaletxe azpiko atarian daude bizitzen. Udalaren erantzunaren zain daude

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko udaletxeko ataria kanpamendua da orain, Atxondo Harrera Herriko kideen etxe berria. Axpeko aterpetxean bizi ziren migratzaileek asteak daramatzate aterpetxean sartu ezinda, eta joan zen barikutik udaletxe azpian daude bizitzen. Atxondoko Harrera Herriko kideen laguntzagaz txandak egiten dituzte euren etxea zaintzeko.

Zer moduz zaudete?

Soufiane Raya: Egia esan, txarto. Norbaitek ez du gura gu Axpeko aterpetxean egotetik eta hau oso gogorra izaten ari da guretzat.

Sadik Mallouk: Esplikaziorik barik kalean utzi gaituzte eta ez dugu ezer ulertzen. Hala ere, beste behin ere Atxondoko herriak ezin hobeto erantzun du eta gugaz

daudela erakutsi digute. Azken batean, gu hemen bakarrik gaude eta izugarri laguntzen digute. Atxondora heldu ginen momentutik familia bat daukagu eta hori guzti hori Atxondo Harrerari eskerrak da. Nik, orain, nire familia kendu gura didaten sententzia da. Ia lau urte daramatzat hemen bizitzen, eta dagoeneko nire sustraiak Atxondon daudela esateko moduan nago, Axpeko etxe honetan, eta orain horiek kendu gura dizkidate, inongo arrazoirik eman barik.

Atxondoko Udalak jakinarazi du zuek birkokatzea adostu duela Eusko Jaurlaritzagaz. Baina oraindik ez dute esan non bizi zaitzeketen. Prest egongo zinatekete Atxondotik beste herri batera joateko?

S.M.: Ez, guk hemen jarraitu gura

dugu. Nahiz eta kalean utzi gaituzten, Atxondon bizitzen jarraitu gura dugu, eta kalean bada ere hemen jarraituko dugu. Hori bai,

Esplikaziorik barik kalean utzi gaituzte eta ez dugu ezer ulertzen. Hala ere, beste behin ere, Atxondoko herriak ezin hobeto erantzun du

argi dago kalean utzi gaituzten horiek ez dakitela kalean lo egitea zer den. Baina guk bai. Zer egin dugu txarto hau merezi izateko?

Zer txar egin dugu guk? Hemen bizitzen jarraitu gura dugu. Faborez, ez gaitzate beste herriren batera bidali.

Udala ipini da zuekin hartu-emanetan?

S.R.: Ez. Inork ere ez digu galdetu zelan gauden edo zer egin gura dugun. Guk eurekin berba egin gura dugu, hainbat galdera dugu eurei egiteko.

Atxondora heldu arte bitzita eta bidaia luze eta gogorrak izan dituzue.

S.M.: Honaino heldu arte gorriak ikusi ditugu eta orain berriro ere txarto pasatuko dugun beldur gara.

Yassin Elkhdimi: Ni Espainiara heldu nintzanean, Andaluzian egon nintzen lehenengo. Han ez nuen inongo laguntzarik eta kalean lo egin behar izaten nuen. Euskal Herrira, Atxondora, heldu nintzanean, ostera, bizimodua aldatu zitzaidan. Hona heldu nintzenetik ez dut kalean lorik egin behar izan. Eta goserik ere ez dut pasatu. Guztia Harrerari eskerrak izan da. **Zuentzat zer da Harrera?**

Y.E.: Harrera talde bat baino gehiago da, familia bat. Harrerakoek euren etxeko ateak zabaldu zitkidaten, ikasketak eta janaria ordaindu dizkidate eta lana bilatzen

laguntzen dute. Herri hau ezin da Harrera talde barik geratu. Hainbat gara hemendik pasatu garenak eta etorriko direnak.

S.M.: Bizitzan izan dudak aukerarik onenetarikoa Atxondo Harrerako kideekin topo egin eta hemen bizitzeko aukera izan da.

Mesedez, ez ezazue utzi sare hau desagertzen, mutil hauek Atxondoko Harrera eta Axpeko etxea behar dituzte

German Hernández: Harrerak ematen duen laguntza ez da beste inon ematen. Ni Atxondoko Harrera taldeari eskerrak orain Salamancan bizi naiz. Atxondon egon nintzen eta euren laguntzagaz independizatzea lortu nuen. Mesedez, ez ezazue utzi sare hau desagertzen, mutil hauek Atxondoko Harrera Herria eta Axpeko aterpetxea behar dituzte, baita etorriko diren guztiek ere.

Atxondon sinadura bilketa martxan ipini dute Harrerako kideei babesa emateko

Migratzaileei babesa eman gura dieten herritarrek Atxondon eta Elorrion dute sinatzeko aukera



Barikuko manifestazioko argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Barikutik, Atxondo Harrera Herriko zazpi migratzaileak udaletxe azpiko kanpalekuan daude bizitzen, eta eurekin batera Harrera taldeko kideak daude. "Inongo azalpenik eman barik kalean utzi dituzte, baina guk ez ditugu la-

guntzarik barik utziko. Gure babes osoa dute eta izango dute. Hemen izango gaituzte", aitortu dute Atxondo Harrera Taldekoek.

Zazpi errefuxiatu hauentzat Harrera taldekoen laguntza ezinbestekoa da, baita herritarrena ere. Eta, horregaitik, sinadura bilketa

bat martxan ipini dute. "Gure etxe-ko atea, udaletxe azpikoa, mundu guztiarentzat zabalik dago. Bertan ongi etorriak izango zarete eta sinadura bilketagaz bat egiteko aukera izango duzue", azaldu dute Harrerakoek. Gainera, Elorrioko zenbait lekutan ere sinadura bilketagaz bat egiteko aukera dagoela jakinarazi dute. Leku hauetan batzen dabiltza sinadurak: Parran, Eguzki Lurren, Portan, Anbotopekon, Bikalen, Zubin, Zelain, Nukleon eta kiroldegian, besteak beste.

"Erantzunaren zain"

"Hasieratik hainbat galdera dugu eta ez dugu inongo erantzunik. Alkateari arkitektoak egindako txostena eskatu diogu eta hainbat galdera egin diogu, baina erantzunik barik jarraitzen dugu. Erantzun bat izan arte, udaletxe azpian muntatu dugun kanpamentuan jarraituko dugu", gaineratu dute.

Barikuan muntatu zuten kanpamentua eta aurretik manifestazioa egin zuten herriko kaleetan zehar. Ehun bat lagun batu ziren bertan eta 'harrera behar dugu' eta 'ez, ez, ez, kaleratzerik ez' leloak oihukatu zituzten, besteak beste.

Harrezkero, hainbat ekintza egin dute bertan: herri bazkaria, mahai jokoak eta kafe tertuliak, adibidez.

Atxondoko Udalak dioenez, etorkinak birkokatzea "adostu" du Eusko Jaurlaritzagaz

Bi erakundeak aste honetan ziren batzartzeoak

ATXONDO • J.D./M.Z.

Joan zen eguztenean Atxondo Herriko Harrera Taldeak salatu zuen udalak ez ziela Axpeko aterpetxera bueltatzen uzten, eta bertan bizi ziren zazpi etorkinak kalean geratu zirela. Egoera hori salatzeke eta etorkinei babesa erakusteko, barikuan kanpaleku bat muntatu zuten udaletxe azpian.

Zapatuan, udalak ohar bat kaleratu zuen gai horren inguruan. Axpeko aterpetxea zein egoeratan dagoen jakin zuenetik udalak "egunak daramatza irtenbide bat bilatzen sorturiko larrialdi egoeraren aurrean", oharrean jakinarazi dutenez.

Horrela, Jaurlaritzagaz etorkinak birkokatzea "adostu" dutela azaldu zuten, eta, horretarako, udal arduradunek aste honetan bilera bat egingo zutela Immigrazio Saileko arduradunekin. "Bilera horretan, etorkinak Eusko Jaurlaritzak profil pertsonalen arabera dituen guneetan bir-

kokatzea izango dute helburu", gehitu zuten oharrean. Edizio hau ixterakoan, astekari honek ez du bilera horren berririk izan.

Itailean sahararren harrera programa amaitu zenetik azpie-

"Egunak daramatza irtenbide bat bilatzen sorturiko larrialdi egoeraren aurrean"

gitura itxita dagoela gogoratu zuten. "Aldi horretan, udalak kexa ugari jaso zuen instalazioetan izandako akatsengaitik, eta horren ondorioz ikuskapena eta ondorengo txostena egin ziren. Ikuskapen horrek eraikina itxita mantentzea gomendatzen zuen. Udala egoera hori konpontzen ahalegindu da eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa lortzea da horren ondorioa", gaineratu zuten.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zein leku du lodifobiak gizarteko aurreiritzietan?

Biolentzia estrukturala da, gizarteko esparru askotan ematen dena. Marta Piñeirok, Espainiako estatuan aktibismo lodiaren erreferentea denak, hiru esparru nagusi bereizten ditu: morala, estetiko eta osasunari loturikoa. Lodifobia leku guztietan dago. Eskoletan, kalean, hartu-emanetan, osasungintzan, estetikian,... diskriminazio eta biolentzia transbertsala da. Sistema zisheropatriarkalak, kapitalismoak eta dieta kulturak nolabaiteko aliantza bat egiten dute. Horiek egituratzen dute lodifobia, nagusiki.

Zeintzuk dira adierazpenik esanguratsuenak?

Demagun kaletik noala eta baten batek *potola!* oihukatzen didala. Edo jaten egoteagatik komentario bat egiten didatela, esanez normala dela nik halako gorputza izatea. Adibiderik ezagunenak horiek dira, baina beste milaka eraso dago. Demagun medikuarenera belarriko minagatik

Gorputz lodi bat ez duten pribilegiatuek zapalkuntza honen existentziaz jabetu behar dute

noala, eta medikuak, horri erreparatu barik, argaltzea gomendatu edo nire gorputzari buruzko iruzkin bat egiten duela. Eskola jazarpen asko dago lodifobiagaz lotuta. Hartu-emanetan ere badago zer esan. Asko izango dira lagun lodiak ez dituzten herritarak eta zer esanik ez bikotekide lodiak ez dituztenak. Desiraren ikuspegitik ere, gureak ez dira gorputz zilegi lez hartzen. Errepresentazio kulturaletan ez dugu istorio bat. Pertsonaia nagusien atzealdean egon gara beti. Beti ipini zaizkigu rol batzuk: pertsonaia jatorra, barre eragilea, protagonistaren laguna, beti jaten dagoena. Iruditegi hori sortu

“Pertsona lodiak jendeak izan gura ez duen gorputz hori gara, baina arazoa sistematan dago”

Laura Galar Pérez de Onrait (Gasteiz, 1994) Haur Hezkuntzako hezitzailea eta lodifobiaren kontrako aktibista da. Asteon lodifobiari aurre egiteko tailerrak hasi ditu Durangoko Andragunean. Tailerretan izena emateko epea zabalik dago



Laura Galar Pérez de Onrait

Haur Hezkuntzako hezitzailea eta lodifobiaren kontrako aktibista

GASTEIZ | 1994

eta erreproduzitu da etengabe. Inportantea da lodifobia existitzen dela barnerratu eta biolentzia horri izen bat ematea. Izendatzen ez denak, bestela, ez duelako ikusgaitasunik.

Instagram, sare sozialak,... irudiaren aroan gaude. Gainerakoei gure buruari buruzko irudi bat proiektatzeko aroan. Zelan eragiten dio horrek gorputz lodiari?

Irudiaren arlo honetan badira ikusgai egiten hasi diren gorputz lodiak. Badira modelo *curvy* batzuk. Aktibismo lodiaz ari garenean interesgarria da hori, gorputzen moral hori apurtzea, lo-

ditasunaren apologia bat egitea, existitzen garela adierazteko. Gazteengan sekulako eragina du gorputzen presentziak. Gorputza gu garen horren definizioa dela dirudi. Horrek eragin zuzena du gazteen nortasun eraikuntzan. Elikadura nahasmenduak ere mahai gainean daude. Honek guztiak lotura du lodifobiarekin eta gorputzaren irudi eta presentzia konstantearekin.

Horrek auto-lodifobia sor dezake?

Argi dago honek guztiak auto-pertzepzioarekin eta izan gura ez dugun horrekin lotura duela. Pertsona lodiak jendeak izan

gura ez duen gorputz hori gara, neurri batean. Arazoa egiturazkoa da, kanpotik dator. Baina jendarte honetan haziak eta heziak garenez, horren kutsadura dugu. Hegemoniaren alderdiak, iruditegiak eta diskriminazioak erreproduzitzen ditugu. Problematizatu beharrekoa, baina, kanpoan dago.

"Pisua zaindu beharko zenuke", "apur bat mugitu beharko zenuke". Horrelako osasun aholkuek zein eragin dute?

Iruzkina horien atzean dagoen ideia da gure gorputzak ez direla zilegiak. Alferrak garela, esfor-

tzurik egiten ez dugula. Iruditegi hori dago eta etengabe erreproduzitzen dugu. Ematen du osasun arrazoi horiek erabiltzea zilegia dela gorputz lodiak diskriminatzeko.

Nondik hasi gaitzke lodifobiari aurre egiten?

Gorputz lodi bat ez duten pribilegiatuek zapalkuntza honen existentziaz jabetu behar dute. Bestalde, beharrezkoa da neurriak hartzea. Instituzioen plangintzetan lodifobia sartzea eta gaia ikusarazten hastea, baita herri mugimenduetan eta feminismoan ere.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko urriaren 28a
20. urtea - 911. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

TADUko aparkalekuak "tarifa bigun bat" izango du aurrerantzean

Durango Udalak prezio publikoak finkatu ditu. Ordainpeko tarifak eta doako ordutegiak ezarri dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Orain arte debalde aparkatu ahal izan da TADUko aparkalekuan, Ertzaintzaren komisariaren aurreko aparkalekuan. Baina aurrerantzean ordaindu egin beharko da. Iker Urkiza EH Bilduko zinegotziaren berbetan, azpiegiturak "prezio bigun bat" izango du. Astegunetan ordainpeko ordutegi bi egongo dira. 9:00etatik 13:00etarako eta 16:00etatik 20:00etarako. Goizeko lau orduak erabiltzeagaitik 50 zentimo pagatu beharko da. Eta arratsaldeko lau orduetan aparkatzeagaitik, beste horrenbeste, 50 zentimo. Beste era honetan ere

interpretatu daitezke prezioak: aparkalekua ordubetez erabiltzeagaitik 0,125 euro ordaindu beharko da. Tarteko orduetan, 13:00etatik 16:00etara bitarteko denboran, debaldekoa izango da. Gauetan eta jaiegunetan ere, berdin. Dena dela, mugak ere badira. Ibilgailua gehienez 24 orduz utzi ahalko da TADUko modu jarraituan. Eguneko muga hori pasatzen duenak isuna jasoko du.

Prezioak arautzeko proposamena EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak egin dute, eta proposamen horrek PSE-EEren babesarekin izan du. EAJk abstentziora jo du.



TADUko aparkalekua.

Durango Maristak ikastetxea, "erreferente" UNICEF erakundearentzat

UNICEFek Maristak ikastetxea saritu du umeen eta nerabeen eskubideetan oinarrituriko hezkuntzagaitik

DURANGO • J.D.

Iaz Euskalitek ematen duen kudeaketa aurreratuko Urrezko A saria lortu ostean, Maristak Durango ikastetxeak beste sari bat jaso du aurten. Oraingoan, UNICEF erakundeak Haur eta Nerabeen Eskubideen eta Herritar-tasun Globalaren Hezkuntzako Zentro "erreferente" lez aitortu du. "Ilusio handia egiten digu. Errekonozimendu horrek, gure ikasle guztiak babesteko helburuagaz orain urte batzuk adingabea babesteko hasi genuen protokoloa bide zuzena dela berresten digu", adierazi dute ikastetxetik ohar baten bitartez. Euskal He-

rrian sei ikastetxek dute UNICEF-en aitortza: Maristak Durango, Iruña Okako Apostólico San José, Errenteriako Sagrado Corazón-Telleri Alde, Donostiako Axular Lizeoa, Bilboko Berrio-Otxoa eta Eguesibarko Santa María la Real ikastetxeek.

"Oso harro gaude geroago eta ikastetxe gehiagok hartzen dutelako konpromisoa haur eta nerabeen eskubideetan oinarrituriko hezkuntzan, hezkuntza komunitate osoa haien bizitza hobetzea helburu duen benetako eraldaketan inplikatur", azaldu du Nacho Guadix UNICEF Espainiako kideak.

Gobernu taldeak eta PSEk San Inazioko jolasgunea estaltzea adostu dute

200.000 euroko diru partida gorde dute horretarako



Abuztu amaieran eman zioten akabera San Inazioko jolasgunea berritzeari.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udalak, Herriaren Eskubideak eta PSEk San Inazioko jolasgunea estaltzea adostu dute. Hiru aldeek umeentzako parke bat estaltzea adostu zuten aurrekontuetan, eta adostasun hori praktikara eramango dute orain. Udal teknikariek hainbat jolas parke proposatu ondoren teilatua ipintzeko, hiru alderdi politikoetako ordezkariak San Inaziokoa estaltzea adostu dute. Horretarako, aurtengo aurrekontuetan 200.000 euroko partida dago gordeta. Behin kokalekua aukeratuta, udaleko arduradun teknikoak agiri teknikoak prestatzen dabilta proiektua lizitaziora atera eta, ondoren, gauzatzeko. "Orain urtebete hiru alderdien artean lorturiko akordioak durangoarren ongizatea hobetzeko balioko du. Behin kokalekua erabakita, proiektua lehenbailehen gauzatzeko aurrera egiten jarraitzea espero dugu", azaldu dute Garrastatxuk, Riosek eta Ruizek.

PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea



PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA
AIRFLOW PERIODONTZIA
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO

ANDRA MARI KALEA 4
944 008 235 - 688 766 973

GALDAKAO

LAPURDI KALEA 18
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE

Elorriko elkarretaratzea egin dute "kalitatezko" osasun publikoa eskatzeko

Elorriko Argi Gorriak elkarteak eta hainbat herritarrek deituriko elkarretaratzera 500 bat lagun batu ziren. 'Gure osasuna arriskuan' lelopean egin zuten elkarretaratzea

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hainbat herritarrek, Argi Gorriak elkartearen laguntzagaz, elkarretaratzerako deia egin zuten joan zen barikuan, eta elorriarrek ezin hobeto erantzun zioten deialdiari. 500 bat elorriar batu ziren Elorriko plazan 'Gure osasuna arriskuan' lelopean.

Argi Gorriak elkartearen esanetan, Osakidetzaren "egoera lotsagarria" salatzea zen elkarretaratzearen asmoa, eta "kalitatezkoa" den bat aldarrikatzea.

"Gure osasun zentroan pairatzen gabiltzan egoera salatuz gura dugu: profesionalak falta

Osakidetzaren egoera "lotsagarria" dela eta "kalitatezkoa" den zerbitzu bat aldarrikatu dute

dira eta batzuetan larrialdiak baino ezin dira artatu", azaldu dute. Horrez gainera, pandemia

hasi zenetik hona pediatria zerbitzuaren kalitateak behera egin duela kritikatu dute hainbat herritarrek. "Pediatriako zerbitzuaren arazoa pandemiatik dator; ordura arte zerbitzu ona genuen, baina hortik aurrera, akabo", esan dio ANBOTOr Saray De Diosek. "Gure herriari dagokion zerbitzua bete dadila eskatzen dugu", gaineratu du Idoia Solanak.

Ildo horretatik, sinadurak batzen dabilta pediatria zerbitzu "duin" bat eskatzeko.



Barikuan egin zuten elkarretaratzea, herriko plazan.

San Juan kaleko eta Elizaldeko bidegurutzeta berrantolatzen

lazko aurrekontu parte hartzaileetan elorriarrek egindako eskarietarikoa bat da bidegurutzeta hau konpontzea

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko berrantolaketa eta mugikortasun arazoari konponbidea emateko asmoz, Elorriko Udala San Juan kaleko eta Elizaldeko bidegurutzeta berrantolatzen hasi da. 69.095 euroko inbertsioa egin dute lanak egiteko, eta bost asteko epean egitea aurreikusten dute.

Lanei dagokienez, aurrez identifikaturiko hainbat arazori konponbidea emateko estrategiak garatu dira. Izan ere, orain arte espaloi batek ez zuen

behar adinako zabalerarik eta San Juan kaletik pasatzen ziren ibilgailuek ezin zituzten ondo ikusi kale hori zeharkatzen zituzten oinezkoak, besteak beste.

Hori horrela, hobekuntza hauek egingo dituzte: espaloi irisgarriak, oinezkoentzat azalera handiagoa, asfaltatze inprimatuko goi-ordokia, pasabideak oinezkoentzat, hobekuntzak sa-neamendu-sareetan, eta trafikoko seinale berriak.



Udala hasi da San Juan kaleko eta Elizaldeko bidegurutzeta berrantolatzen.

Abadiñoako Gaztetxearen 24. urteurrena ospatuko dute asteburuan

Abadiñoako Gaztetxeko kideek egitarau zabala antolatu dute asteburu honetarako, urriaren 28rako eta 29rako

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteburu honetan Abadiñoako Gaztetxearen 24. urteurrena ospatuko dute, Abadiñoako gune autogestionatuaren urteurren jaia. Gaur emango diote hasiera ospakizunari, urriak 28, bertso afari batez. 21:30ean izango da, Gaztetxean bertan, eta Igor Elortza eta Aitor Bizkarra arituko dira bertotan.

Egun osoko egitaraua

Zapaturako, urriak 29, Abadiñoako Gaztetxeko kideek egun osoko egitaraua antolatu dute. Ohitura duten lez, bizikleta martxagaz emango diote hasiera egunari. 11:00etan hasiko da, Gaztetxean. Gero, 13:00etan, poteoa egingo dute eta 15:00etan herri bazkaria.

Bazkalostean jolasak egongo dira, eta gauean kontzertuak Gaztetxean. 22:30ean hasita, Ainke eta Baskbilitx taldeek joko dute, eta horien ostean DJak egongo dira.



Abadiñoako Gaztetxea.

46.000 euro Abadiñoako argiztapena hobetzeko

Argiztapen lan hauek Zelaietako, Traña-Matienako eta Mendiolako zenbait eremutan egingo dituzte

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak hainbat hilabete daramatza kanpoko argiztapena berritzen herriko hainbat tokitan, oinezkoen pasabideetako eta gabeziak zituzten gune sakabana-tuetako segurtasuna hobetzeko. Lan horiekin jarraituta, orain Zelaietako, Traña-Matienako eta Mendiolako hainbat lekutan berriztuko dute argiztapena. Lanek 46.000 euroko aurrekontua izango dute eta led argiz eta eguzki farolez osaturiko sistema eraginkorrak ipiniko dituzte.

Bestalde, udaletik jakinarazi dute obrarik garrantzitsuena 24.000 eurokoa izan dela eta Irazolarako bidean egin dela, Txatena baserriaren inguruan. Gainera,


segurtasuna hobetzeko, oinezkoen hainbat pasagunetan argiztapena hobetu da.

"Alde batetik, gune ilunak kendu eta segurtasuna hobetu gura dugu, baina, horrez gainera,

Udalak hainbat hilabete daramatza kanpo argiztapena berritzen herriko hainbat tokitan

jarduketa horietan lehentasuna eman behar diogu kontsumo txikiko argiak eta elektrizitate-gastua murrizteko sistema eraginkorrak erabiltzeari", azaldu du Mikel Garaizabal Abadiñoako alkateak.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
RPS: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangon

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behe 48200 durango

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454uecdental@gmail.com

 **Estetika**
PSE: 16/09



www.medicinaesteticadurango.com

Obesitatea-zelulitiisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO**

944 657 132 - 686 906 374

Ardo feria, elizpeko pilota txapelketa, kickboxing gaua eta autoen slalom probak Urriko Jaien bigarren asteburuan

Amateurretako Kickboxing Gauean Mallabiko hiru gerriko egongo dira jokoan eta borrokaldi batean Aitor Romero 19 urteko garaitarrak parte hartuko du

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Gozategik, Chill Mafiak eta DJ Txurruk zapatu gauean eskainiko duten musika jaialdiagaz gainera, makina bat ekimen gehiagogaz gozatzeko aukera egongo da Urriko Jaien bigarren asteburuan.

Esaterako, gaur arratsaldean herri kirol erakustaldiak daude parkean, eta elizpeko pilota txapelketako finala elizpean. Azken txapelketa honetan Mallabiko sei bikote ibili dira lehian, multzo bitan banatuta. Finala 19:00etan hasiko dira eta hauek izango dira protagonistak: Jon Gisasola eta Gartxot Mugarza Xabat Aretioaurtenaren eta Jon Egurrolaren kontra. 30 tantora jokatu dute.



Ardo azokaren bosgarren aldia izango da aurtengoa.

Ardo azoka

Zapatuan, Udalak eta Ardosaltsanek antolatuta, Ardo Feria egingo dute, 12:00etan hasita. Bosgarren aldia izango da aurtengoa. Ekimenean askotariko ardoak dastatzeko aukera emango dute eta herriko tabernariak egindako

pintxoak ere salduko dituzte. Azokarako sarrera 7 euro izango da.

Egun bereko eguerdian herri bazkaria egingo dute parkean, guraso elkarteak antolatuta.

Kickboxing gaua

Kickboxing Gaua ekimen berria da Mallabian. Udalak eta Euskadiko federazioko kickboxing adarrak herriko frontoian egingo dute, 18:00etan. Amateur mailako zortzi

borrokaldi egongo dira eta eurretari hirutan Mallabiko Gerrikoak egongo dira jokoan. Gerrikoaren bila arituko denetariko bat eskualdekoa da: Indar Sport taldeko Aitor Romero. 19 urteko garaitarrak

Alegria-Dulantziko Guiri Chico izango du kontrario. Galtzaileak ez du askorik itxaron beharko errabontzarako: hurrengo asteburuan berriro neurtuko dituzte indarrak Alegria Dulantzian antolatuko duten jaialdian.

Jokoan egongo diren gainerako gerriko bietako borrokaldiak honako hauek dira: Basakick taldeko Araia Sanz Txapelduna Ugao taldeko Saioa Blancoren kontra, eta Tan Tui taldeko Angela Ugarte Elite Sport taldeko Janire Carricondoren aurka.

Autoen slaloma

Domekako kirol ekitaldia ere nobedadea da. Goiton Beheko industrialdean autoen Mallabiko lehenengo slaloma egingo dute, 15:00etan. Euskadiko slalom txapelketarako puntuagarria izango da. Modalitate honetan, autoen zaldi kopuruak baino garrantzi handiagoa du gidariaren abileziak zirkuitu bihurtuetsuari aurre egiterako orduan.

Askotariko hegaztien habiak eta arrautzak ikusgai Hontza museoko erakusketa berrian

MAÑARIA • J.D.

Hontza museoak erakusketa berria antolatu du eta ikusgai. Oraingoan, hegazti autoktonoen nahiz exotikoen habiak eta arrautzak atera dituzte museoko biltegi handitik, eurekin erakusketa bat antolatzeko.

Erakusketako arrautzarik handiena ostrukarena da. Tamainan, emu eta ñandu hegaztien arrautzak datoz hurrengo.

Azken hegazti bi hauek jatorriz Australiakoak eta Hegoamerikakoak dira, hurrenez hurren. Eta arrautzarik txikiak Javako (Indonesiako irla bat) txolarre batenak eta kanario batenak dira, besteak beste. Tamainan ez ezik koloreetan ere aniztasuna dago. Esaterako, 'pirincho' lez ezagutzen den Hegoamerikako hegaztiaren arrautzak orban urdinak ditu zuri kolorearen gainean. Habiei dagokienez, karnaba,

behor-txori, kolibri eta eta zozo espezieetako hegaztienak batu dituzte, besteak beste.

Horrez gainera, aipatzekoa da Europako animalia ornodunak erakusten dituzten areto bietan Urkiolako Parke Naturelean bizi diren animaliak etiketa berdeen bitartez adierazi dituztela, bisitak "aberasgarriago" egiteko eta bertoko ingurunea ezagutzen laguntzeko, museoko kideen esanetan.



Hontza museoko erakusketan ikusi daitezkeen arrautza eta habia batzuen irudia.

Anteparaluzetako lanak azaltzeko, Otxandioko Udalak herri batzarra egingo du eguaztenean

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Udalak auzo batzarra deitu du Anteparaluzeta auzoan egitekoak diren lanen gaineko azalpenak emateko. Datorren aste eguaztenean izango da, 19:00etan, udaletxean. Orain arte, udalak informatu du lanak Petralanda Eraike-

Eguaztenean egingo dute auzotarrek batzarra, 19:00etan, Otxandioko udaletxean

tak enpresak egingo dituela. Bigarren saiakeran esleitu du proiektua. Lehenengo, lanak adjudikatzeko lehiaketa publikoa egin zuen irailean zehar, baina ez zen enpresarik aurkeztu. Ondoren, kasu hauetarako legeak ezartzen duen bideari jarraituz, hiru enpresagaz prozedura negoziatua ipini zuen martxan. Azkenean, Petralanda Eraiketako enpresari esleitu zizkion lanak.

Euskaraldiari buruz informatzeko aukera, azaroaren 4an eta 11n, Izurtzako liburutegian

IZURTZA • J.D.

Euskaraldia ate joka dagoen honetan —azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da— Izurtzako Udalak ekimenean parte hartzera deitu ditu herritarrak. Izen-ematea www.euskaraldia.eus webgunearen bitartez egin daitekeela gogorarazi dute, bai-

Izurtzako Udalak Euskaraldian parte hartzera deitu ditu herritarrak

na aurrez aurreko arreta ere eskainiko dute. Azaroaren 4an eta 11n, biak barikuak, arduradunen bat liburutegian egongo da 12:00etatik 13:30era, eta izurtzarrak bertara joan daitezke dudak argitzera. Aurtengoa Euskaraldiaren hirugarren aldia izango da. Ariketa sozial erraldoi honek hizkuntza ohiturak aldatzea du helburu, ahalik eta euskarazko hartu-emanik gehien sortuz egun horietan.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

**> anboto
kide**

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ekainean eta uztailean egin-dako grebak oinarri hartuta, metalgintzako langileek beste greba sorta bat hasi dute asteon. CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT eta CNT sindikatuek deitu dute mobilizazioetara. Atzo egin zuten lehenengo greba eguna eta gaur dute bigarrena. Hirugarrena azaroaren 2an egitea aurreikusi dute. Grebaren erantzunagaz "pozik" zeudela azaldu zuten sindikatu deitzaileek. LAB sindikatuko Oihane Torresek azaldu zuenez, enpresa handietan grebak jarraipen handia izan zuen. Sindikatuaren datuen arabera, Gestamp Bizkaian %95eko etena izan zuten. CIE taldekoetan ere bai, Inyectametal, Udalbide eta Egaña enpresetan; baita Mecanifranen eta Tuercasen ere.

Beharginek lan hitzarmen "duin" bat lortu gura dute mobilizazioekin. Patronala, Metalgintzako Lantegien Bizkaiko Federazioa (FVEM) eta sindikatuak iazko azarotik dabilta negoziatuetan Bizkaiko hitzarmena berritzeko, baina alde biek ez dute adostasunik lortu orainoz. Sindikatuen esanetan, patronala negoziatuetan "blokeatzen" dabil.

Beharginen eskakizunen artean, "sektoreko langileen eros-ahalmena bermatzea" eta

Metalgintzako beharginak eros-ahalmenera eta inflazioa egokituriko soldata eske

Langileak greban daude atzotik. Atzo manifestazioa egin zuten eta azaroaren 2an beste lanuzte bat egingo dute



Atzo egindako manifestazioaren irudi bat.

"subrogazioa beste kolektibo batzuetara zabaltzea" daude. Orain aste batzuk Arabako metalgintzan adosturiko lan hitzarmen berria ipini dute adibide modura.

Horrez gainera, azpimarra berezia egin diote prezioen gorakadari. Hain zuzen ere, langileen soldata inflazioaren arabera igotzea ere jaso dute eskarien artean.



Berrerabilitako zubia 34 metro luze da.

Berrerabilitako zubi bat Zornotza-lurreta bizipistan

Harrobi bat lehengoratzeko lanetan erabilitako zubiari bigarren erabilpen bat emango diote Arriandin

DURANGALDEA • J.D.

Bizkaiko Foru Aldundiak zubi bat berrerabili du Zornotza-lurreta bizikleta pista eraikitze lanetan. Hain zuzen ere, Bilboko Peñascaleko harrobia lehengoratzeko erabilitako zubi bat. "Ekozubia" deritzon azpiegiturak 34 metroko luzerako metalezko egitura du eta orain Arriandin egongo da,

etorkizuneko bizikleta pistaren erreka gaineko pasabide modura. Zubia 34 metro luze eta 7,80 metro zabal da. Horri eskerrak, bizikleta pista 3,80 metroko zabalera izango du bere ibilbide osoan, eta oinezkoen aldeak 1,85 metrokoa. Zornotza eta lurreta lotuko dituen bizipista udaberrirako erabilgarri egotea gura du udalak.

Etxanoko frontoiak aldagela eta komun berriak izango ditu hiru hilabete barru

Dutxa egokitu, komuna irisgarri egin eta teilatuko ur filtrazioak konponduko dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udala Etxanoko frontoiko komuna eta aldagela berritzen hasi da asteon. Komuna irisgarri egingo dute, dutxa egokitua instalatuko dute eta aldagelaren banaketa berrituko dute. Horrez gainera, sarrera zabalduko dute, eta ur beroa lortzeko termoa eta umeentzako aldagailua ipiniko dituzte. Teilatuan ere berrikuntzak egingo dituzte ur filtrazioak direla eta. Udalak 79.535 euroko inbertsioa egin du.



Etxanoko frontoia.

Hondakin organikoa batzeko informazio gunea ipiniko dute Garain

Plazan ipiniko dute, azaroaren 2an eta 8an. Herritarrek hondakinak batzeko materiala hartu ahalko dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Azaroaren 2an eta 8an, edukiontzi marroien erabilera sustatzeko informazio mahaia ipiniko dute Garaiko plazan. Bertaraten diren herritarrek hondakin organikoa birziklatzen hasteko informazioa eta materiala jasoko dituztela azaldu dute antolatzaileek.

Postua 10:30etik 14:30era egongo da azaroaren 2an, eta 16:00etatik 20:00etara azaroa-

ren 8an. Hondakin organikoen birziklatzea bultzatzeko kanpainan bat egin dute Garaiko Udalak, Aldundiak eta Mankomunitateak. Azken honek Durangaldeko 2.600 etxetara helduarazi gura du zerbitzua, gaur egun baino 800 etxe gehiagotara. Zerbitzuan alta eman gura duenak 946 232 522 telefono zenbakira deitu edo hondakinak@dma.eus helbidera idatzi dezake.

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behe
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Berrizko gaztetxearen aurkako bigarren eraso bat salatu dute

Asanbladako kideek elkarretaratzera dei egin diete herritarrei "gaztetxearen moduko guneak babesteko"



Urri hasieran lapurreta salatu zuen asanbladak.

BERRIZ • A. M.

Eguenerako elkarretaratzera deitu zuten Berrizen, urriaren Hiltegi gaztetxearen aurka egon diren eraso biak salatuz. Asanbladako kideek dei egin diete herritarrei gaztetxearen moduko guneak ba-

besteko. "Gaztetxeak errespetatu egin behar direla uste dugu eta herritarrei ere badagokie eurenak ere badiren guneak babestea", esan zuten. Lehenengo eraso urriko lehenengo astean salatu zuten. Ate eta leihoak apurtzeaz gainera,

erasotzaileek kableak eta harraskak apurtu zituztela salatu zuten asanbladako kideek. Horrez gainera, kalte materialak konpontzeko gastu ekonomiko handia izango zutela salatu zuten. Bigarren eraso aste honetan bertan salatu du asanbladak. Izan ere, "hainbat gazte topatu zituzten barruan bertako alkohola edaten, gaztetxeko materiala eta altzariak apurtu ostean". "Eraso hauek Berrizko herria kaltezen dute, gaztetxea bizi eredu bat baita, 24 urtean zehar kultura sortzen eta hedatzen ale garrantzitsua ipini duena", azaldu dute asanbladako kideek. Etorkezinean ekimen gehiago egiteko asmoa ere iragarri dute.

Hainbat herritan

Berrizko gaztetxekoa ez da azkenaldian salatu duten lapurreta bakarra. Eskualdetik irten barik, Zaldibarren ere salatu zuten lapurreta, urriaren 1ean. Kasu honetan, besteak beste, tablet gailu elektronikoko bat, dirua eta alkohola eraman zituzten. Horrez gainera, Elorrioren ere lapurreta saiakera salatu zuten gaztetxean. "Gaztetxera sartzen ahalegindu diren arren, ez dute lortu barrura sartzea. Elorrioko gaztetxeko kideok ez dugu espazio autogestionatuetan inongo erasorik onartuko". Euskal Herrian ere antzeko lapurreta salatu dituzte asteotan; azkena Larrabetzuko (Bizkaia) Hori Bai gaztetxean.

Iurretako Maiztegi eskolan 54 eguzki modulu ipiniko dituzte

Iurretako Udalak 227.000 euro inbertituko ditu ikastetxeko eraginkortasun energetikoa hobetzen

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udala Maiztegi eskolako sarrera nagusiko estalkia eta ataripea ordezkatzen eta panel fotovoltaikoak ipintzen hasi da. Motorrik edo alternadorerik barik eta hondakinik sortu barik, energia elektrikoa sortzeko 54 eguzki modulu ipiniko dituzte, "Maiztegi

eskari elektrikoaren %36 betez", Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan.

227.000 milioi euro erabiliko dituzte eraginkortasun energetikoa hobetzen, eta lau hile barru amaitzea aurreikusitako dute. Estalkia iragaitzeko eta euri urak husteko elementuak ere ordezkatuko dituzte.



Maiztegi eskari elektrikoaren %36 beteko dela nabarmendu du alkateak.

Katikenako horma finkatuko dute datozen egunetan Zaldibarren

ZALDIBAR • A. M.

Asteon, Katikenako horma finkatzen hasi dira Zaldibarren. Lanek 8.694, 79 euroko gastua izango dute eta horiek "datozen egunetan" amaitzea aurreikusten du Zaldibarko Udalak, ohar batean adierazitakoaren arabera. Hauek ez dira azke-

8.695 euro ordainduko dituzte Katikenako horma konpontzeko; "egun batzuk barru" amaituko dute

naldian hasi dituzten lan bakarrik herrian, izan ere, Olazar frontoiko kantxako estalkia eta sarbidea ere hobetzen hasi dira. Lan horiek 189.322, 84 euroko kostua izango dute. Obra hauek hamar aste barru amaitzea aurreikusten du udalak. Aldatsa kalea itxita egon da haize boladengaitik.

anboto
kide

Anbotokideen txokoa

URRIKO IRABAZLEAK


Goizane Aizpuru



Mendigoikoa Bekoa jatetxean bi pertsonentzako eguneko menua.

Hitz liburu dendako liburuak:

Begoña Lizundia



Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



ANBOTOk Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako sarrerak zozkatuko ditu

Zozketa azaroaren 2an egingo da parte hartzen duten

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako herritar talde batek egun osoko jaia antolatu du azaroaren 6rako. Egitarauko ekintzarik potoloena Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izango da. Pailazo ezagunak Zelaietako probalekuan egongo dira, 17:30etatik aurrera. *Kuikui* ikuskizuna egingo dute.

ANBOTOk sarrera laukoitz bat zozkatuko du Anbotokideen artean. Zozketan parte hartu gura

duenak www.anboto.org/zozketak atalean sartu beharko du eta bertan dauden pausoei jarraitu beharko die. Azaroaren 2an emango da irabazlearen berri.

Dena dela, pailazoena ez da egunekiko ekintza bakarra izango. Ikuskizunaren aurretik, 11:00etatik 14:00etara, umeentzako ekintzak egingo dituzte Ferialekuan. Eurria bada, frontoian. Horrez gainera, pailazoaren ikuskizuna amaitzen denean txokolatada egingo dute.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Politikan

Neskutz Rodriguez Ormazabal
Herriaren Eskubidea



Aniztasuna

Urriaren, Gizarte Mugimenduen Herri Unibertsitateak (UPMS) Euskadin egindako lehen topaketan parte hartu nuen. Gizarte-mugimenduen eta unibertsitatearen arteko topaketa bat da, aniztasuna aintzat hartuta, kolektiboki eraikitzeke eta lurralde-errotari aurre egiteko. Errazago esanda, ekintza kolektiboak antolatzeko zerk zatitzen gaituen eta zerk batzen gaituen pentsatu, partekatu eta alternatibak sortzeko topaleku bat.

Izan ere, batzuetan, bereizten gaituena ez da edukiari dagokiona, hizkerari, hizkuntzari eta borroka-errotari historiko eta kulturalari dagokiena baizik.

Eta banatzen gaituen horretan eztabaida bat sortu zen, agian deserosoa baina oso beharrezkoa: nola bermatu bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egiteko duen eskubidea, eta, aldi berean, hizkuntza hori komunikazio-oztopo ez bihurtzea?

Ordu luzez luzatu zen eztabaida izan zen, eta zoritxarrez ez genuen konponbide egokirik aurkitu. Izan ere, hizkuntza, komunikaziorako tresna izateaz gain, balio kulturala eta identitarioa ere bada berez, eta hori bultzatzeko eta mantentzeko egin beharrezko lana ezinbestekoa da. Baina tamalez, eta gustatuko litzaidakeena baino gehiagotan, pertsonen arteko harresi ikusezin bat bihurtzen da, desberdintasunak eta bereizketak sortuz.

Badakit eztabaida deserosoa eta zaila dela askorentzat, baina, zalantzarik gabe, heldu egin behar dioguna, errealitate bat baita gure gizartean eta gure herrian.

Errotari kolektiboki aurre egin nahi badiegu, aniztasuna islatu egin behar da eta ahots ezberdinak entzun.

Durungaldea asteen

Iturritzorok elkartearen XXXII. Errebonbilo margo lehiaketa antolatu dute Elorrion

ELORRIO | Iturritzorok elkartek XXXII. Errebonbilo margo lehiaketa antolatu du zapatarako. Aire zabaleko pintura lehiaketa izango da eta gura duten guztiek parte hartu dezakete. Gaiari dagokionez, partaideek herriko edozein leku aukeratu dezakete. Izena 9:00etatik 10:00etara bitartean eman beharko da, Iturri Kultur Etxean.

Auzo batzarrak Mallabian, auzoen egoerari buruzko informazioa jasotzeko

MALLABIA | Auzoen egoerari buruzko informazioa partekatzeko eta auzoak hobetzeko proiektuak aurrekontuetan sartzeko helburuagaz, Mallabiko Udalak hainbat bilera antolatu du. Dagoeneko egin dituzte batzuk eta azaroaren 2an eta 3an beste bi izango dituzte. Azaroaren 2an, Areitio, Aitxu, Osma eta Zegotita auzoetakoekin batuko dira. Azaroaren 3an, herrigunekoekin.

Zornotzako Udalak Marabi eta Urgoitiko hornidura sare berrirako obrak hasi ditu

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak joan zen astean hasi zuen Marabi eta Urgoiti auzoak edateko urez hornitzeko sare berria egiteko obra. Udalak 178.000 euroko aurrekontua aurreikusi du eta lanak 5 hilabeteko epean eginga egotea itxaroten dute.



2023ko ekainaren 24an egingo dute Koba Live jaialdiaren bigarren edizioa Abadiñon

ABADIÑO | Metal eta rock doinuak uztartzen dituen Koba Live jaialdiaren bigarren edizioa izango duela baieztatu du Abadiñoako Udalak. 2023ko ekainaren 24an egingo dute jaialdia.

Argi Abad Kultura eta gazteria zinegotziak bigarren edizioan lanean dabilela baieztatu du ohar baten bitartez. "Bigarren edizioaren programazioa lantzen gabiltza, eta antolaketa alderdiak hobetzea, kartel on bat lortzea eta berriro ere jaialdi arrakastatsu bat izatea espero dugu", azaldu du.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

Poesia errezitaldia /
Liburuaren aurkezpena

Barrenetik zulatzen zaitut.
8 ahots itsasertzetik.

Parte hartzaileak: Ane Zubeldia, Miren Irizar, Jone Makazaga,
Iosune de Goñi eta Leire Vargas.

Azaroak 2, eguaztena, 19:00-tan, Durangoko Hitz liburu-dendan. *Doan

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Ainara Urreta Jainaga
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ





R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404




MATEMATIKA


Zenbatu itzazu beheko hegaztiak eta ipini zenbat dauden dagokion laukian.



GURUTZEGRAMA




LABIRINTOA



ESKULANA

Batu hostoak eta itsatsi hemen zuhaitz bat sortzeko.
Alboan dagoen argazkian adibide bat daukazu.





'Batetik bestera'

ANTZERKIA DURANGO :: Urriak 30

Giza migrazioari buruzko antzezlan, Benetan Be konpainiaren eskutik

Benetan Be antzerki taldeak giza migrazioaren gaiari heldu dio *Batetik bestera* ikuskizunean, horretarako txorien migrazioa erabilita bitarteko lez. "Bor-bor batean dago Hezegunea. Udaberriko migrazioa hemen da! Iparrerrantz doazen lehenengo bidaiariak heltzen hasi dira indarberritzeko premiaz", sinopsian azaldu dutenez. "Prismatikoetatik adi-adi begiratzen baduzue, laster berei-

zi ahalko duzue horietariko hainbat". Umoretik, eta txotxongiloen eta bideo proiektzioen laguntzagaz, musikaren uhinek euren jarlekuetatik altxatuko dituzte ikusleak.

Benetan Be konpainiak San Agustin kulturgunean taularatu du *Batetik bestera* obra, domekan, 18:00etan. Patricia Urrutia, Juanjo Otero eta Jon Zumelaga aktoreak igoko dira taula gainera.

Urriaren 28an

ABADIÑO musika

La Revalida, 20:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

ABADIÑO urteurrena

Gaztetxearen 24. urteurrena: Bertso afaria Igor Elortza eta Aitor Bizkarragaz, 21:30ean.

IURRETA ipuinak

'Ipuinak kandel inguruan' (Lur Korta), bibliotekan: 17:00etan, (3-5 urte), 17:45ean (6 urtetik gora).

IURRETA helduentzako ipuinak

'Divinas seducciones' (Arnau Vilardebó- Bartzelona), 19:00etan, bibliotekan.

MALLABIA urriko jaiak

Txondor herri kirol taldearen saioa, 17:00etan, parkean.
Txupinazoa, 18:30ean, Kontzejuzarreko balkoitik.
Elizpeko pilota txapelketako finala, 19:00etan.
Oilasko pintxoak, 20:30ean, parkean.
eMePebo5t, 21:00etan, parkean.
DJ Gorka Pérez, 00:00etan.

ZALDIBAR musika

Zeharka Flute, 19:00etan, San Andres auzoan.

ZORNOTZA antzerkia

'Yerma' (La Dramática Errante), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urriaren 29an

ABADIÑO urteurrena

Gaztetxearen 24. urteurrena: Bizikleta martxa, 11:00etan, Gaztetxetik.

Poteoa

13:00ean.

Herri bazkaria

15:00etan. Gero, jolasak.

Ainke + Baskibiltx

22:30ean, Ondoren, DJak.

BERRIZ ipuinak

'Amona Joseparen ipuinak' (Patata Tropikala), 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ antzerkia

'Alderray' (Tartean Teatro), 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO kontzertua

Durango Txistu Kontzertua 2022, 20:00etan, Landako Gunean.

ELORRIO lehiaketa

XXXII. Aire Libreko Errebonbillo Margó Lehiaketa. Izena ematea, 09:00etan, Iturri kultur etxean.

IURRETA tailerra

Gaba Beltzeko postal tailerra, 17:00etan, plazan.

MALLABIA urriko jaiak

Duatloi txikia, 11:00etan.
Mallabiko V. Ardo Feria, 12:00etan, probalekuan.
Herri bazkaria: paella, 14:30ean, parkean.
Kick Boxing gaua, 18:00etan, frontoian.
Dunbots elektrotxaranga, 19:00etan.

Gozategi + Child Mafia + Txurru

22:30ean, parkean.

Urriaren 30ean

ABADIÑO musika

Zeker, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

ABADIÑO tailerra

Arimen Gaua: eskulan tailerra eta txokolatada, 17:00etan, Muntsaratzeko aterpean. Mozorrotuta joatera deitu dute.

DURANGO euskal jaia

54. Euskal Jaia. Taldeak 12:00etan batuko dira, Landako Gunean. Kalejiraren ondoren, **alardea**, Ezkurdin.

MALLABIA urriko jaiak

Tor magoa, 16:30ean, probalekuan. Gero, **txokolatea**.
I. Autoen Slaloma, 13:00ean hasita, Goitondo Beheko Lau.
Mus Txapelketa, 17:00etan, Kontzejuzarrean.

IZURTZA bisita

Etxaburu Dorretxera bisita, 11:30ean.

Urriaren 30era bitartean

DURANGO erakusketa

'Durango New European Bauhaus' (Rai Bikandi), Ezkurdi erakustazokan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Abadiño

ERROTA KULTUR ETXEA

• **Dios mío, ¿pero qué nos has hecho?**
zapatua 29: 19:00

• Izurde mutikoa

domeka 30: 17:00

:: Berriz

KULTUR ETXEA

• **La escuela de animales mágicos**

barikua 28: 17:00

domeka 30: 17:00

:: Durango

ZUGAZA ZINEMA

• Amsterdam

barikua 28: 19:30

zapatua 29: 18:00 / 21:00

domeka 30: 17:00 / 19:45

astelehena 31: 19:00

martitena 1: 17:00 / 19:00

eguztana 2: 19:00

• El cuarto pasajero

barikua 28: 18:30 / 21:00

zapatua 29: 18:00 / 20:00 / 22:00

domeka 30: 18:30 / 20:30

astelehena 31: 18:00 / 20:15

martitena 1: 18:00 / 20:00

eguztana 2: 19:00

• La piel del tambor

barikua 28: 18:30

zapatua 29: 19:00

domeka 30: 18:30

astelehena 31: 18:00 / 20:15

martitena 1: 20:00

• Black Adam

barikua 28: 21:00

zapatua 29: 21:30

domeka 30: 20:30

• Lilo, mi amigo el cocodrilo

zapatua 29: 17:00

domeka 30: 16:30

martitena 1: 17:00

• Un pequeño mundo

eguztana 2: 19:00

:: Elorrio

ARRIOLA ANTZOKIA

• Ninjababy

zapatua 29: 20:00

domeka 30: 20:00

astelehena 31: 20:00

martitena 1: 20:00

• Tadeo Jones 3: La tabla esmeralda

domeka 30: 17:00

:: Zornotza

ZORNOTZA ARETOA

• Argentina 1985

zapatua 29: 20:00


domeka 30: 20:00

astelehena 31: 20:15

• Operación bebé oso

zapatua 29: 17:00

domeka 30: 17:00



Dagoeneko ASTOLA ALDIZKARIA kalean

**Bizi zaren eskualdeaz
gehiago jakiteko
8 artikulu berri**

Landa paisaia baten eboluzioa · Adrian Burgada Ereño
Leopoldo Zugazari elkarrizketa · Juanan Hernandez
Herri - basoetako sail borobilen haztarnak · Iosu Etxezarraga Ortuondo
Izurtzako Etxaburu dorrea · Juan Manuel Cembellin
Iurreta harginak · Markel Onaindia Txabarri
Durango latsarriak · Nerea Gaston Tabera
Durango, martxoak 31 · Jimi Jimenez
Durangaldeko paisaia geologikoa · Arturo Apraiz

“Zergaitik ez gara ahaleginduko Bilboko antzerkizale euskaldunak Pabilioi 6ra erakartzen?”

Arriagako estreinuaren ondoren, Pabilioi 6k 'Love & Money' aurkeztuko du bere aretoan; Aitor Etxarte aktore durangarrak antzezlanean parte hartzen du



ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO
Prestatzeko “gura baino denbora gutxiagogaz”, baina egindakoa erakusteko gogoz daude Gazte konpainiako eta Pabilioi 6ko lagunak. Izan ere, euskaraz ekoitzi duten lehenengo lana aurkeztekoak dira azaroaren 4tik 27ra bitartean. Eguaztenean estreinatuta zuten, Arriaga antzokian (gainerako emanaldiak Pabilioi 6 aretoan izango dira). 2019tik konpainiako kidea den Aitor Etxarte durangarragaz egon da ANBOTO.

Pabilioi 6ren lehenengo lana da osorik euskaraz. Zergaitik orain?
Pabilioi 6k ez du euskarazko ekoizpenik egiten normalean. Hizkuntza bitan egin izan dira, baina normalean gaztelaniazko bertsoaren moldaketa bat egin izan

da; asteburu batean eskaintzen zen aukera hori, eta normalean, gaztelaniazko aukera egonda, hori lehenesten zuen publikoak. Uste dugu hor publikoa galtzen zela. Urteetan euskarazko zerbait egiten ahalegindu gara, eta Gazte konpainiaren erronketariko bat ere hori izan da. Azkenean, arriskatzea erabaki dugu. Esango nuke hor aukeraketa militante bat ere badagoela. Publikoaren erdia badator ere, gure apustua hor dago. Pabilioi 6ren zirkulurik txikienan ez dago hizlari euskaldun asko, baina egon badago. Cécile Marquette bera frantziarra da. Gure artean ere barreak egiten ditugu. Jatorrizko testua ingelesez duen euskarazko antzezlan bat egiten gabiltza, zuzendari fran-

tziaz bategaz. Txiste bat dirudi (barrez). Abuztu amaieran hasi ginen entseguekin, eta urriaren 26an dugu estreinua, Bilboko Arriagan. Azaroaren 4tik aurrera, ostera, Pabilioi 6an bertan egongo gara, bariku, zapatu eta domeka. Eskolentzako emanaldiak ere baditugu lotuta.

Eta barrura begira, zelan konpondu zarete?

Ni, adibidez, nire konfort egoeratik apur bat irten naiz. Taldeki-deok ez dugu aurretik proiekturik elkarrekin egin, elkar ezagutzen genuen arren. Apurka joan gara euskaraz funtzionatzeko ohitura hartzen. Nire kasuan, euskaraz egiten dudana bigarren antzezlan da. Gaztelania izan da orain artean nire laneko hizkuntza.

Kideen artean, batzuek gehiago antzeztu dute euskaraz. Dena dela, euskara maila, kalitatearen aldetik ere, ahalik eta handiena izan dadin gogor lan egin dugu.

Gazte konpainian, nire helburuetariko bat programazioaren erdia euskaraz egitea zen, edo behintzat ahalegina egitea. Bilbon euskarazko antzerkizaleen publiko bat badago, zergaitik ez dugu ahalegin bat egingo horiek Pabilioi 6ra erakartzeko? Lantaldia prest zegoen eta aurrera egin genuen. Zortea ere izan dugu Arriagak estreinua erosi duelako eta horri eskerrak lasaia egin ahal izan dugulako.

'Love & money'. Zer da?

Bizi dugun neoliberalismo aro honetan kokatzen da istorioa, diruak

eta maitasunak izan ditzaketen talkei buruzkoa, hain zuzen ere. Adibidez, bikote harreman batean, zer gertatzen da euretariko bat zorrez leporaino badago? Gurasoen eta alabaren arteko harremanean, dirua behar denean, zer gertatzen da? Zelan eragiten du diruak norberarekiko maitasunean

Apurka joan gara euskaraz funtzionatzeko ohitura hartzen. Nire kasuan, euskaraz egiten dudana bigarren antzezlan da

ere? Putzu sakon batean sartu eta bertatik irten ezin horrek gaintitu egiten ditu pertsonak sarri.

Istorio honetan, pertsonaia nagusi bi daude. David da horietariko bat. Maitasuna topatzen du berriro, negozio bidaia batean frantziar bat ezagututa; email bidezko harreman bat hasten dute. Bizitzako momentu batean ekonomiak estutu egiten du, eta ez daki hortik zelan irten. Eta hor ikusten da noraino heldu gaitzekin horrelako egoera estu bat bizi dugunean. Obra zazpi eszenatan banaturik dago eta egiturak ez du kronologia jarrai bat. Eszena bakoitza bere horretan ulertu daiteke.

Arriagan antzeztzen duzun lehenengo aldia da?

Tamainaz handiak diren Barakaldo eta Campos Eliseos antzokietan aritua naiz, baina Arriagan ez. Lehenengo aldia dut bertan antzeztzen, eta ilusioagaz nago horregaitik. Pozten naiz ere Pabilioian jarraitzen gaituen jendeak gu Arriagan ikusteko aukera izango duelako. Ilusioa dut, baina eman behar zaion garrantzia emango diot, ez gehiago.



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari



urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Bat egiteko garaia da





Sandra Fdez. Aguirre eta Mikel Martínez aktoreak.

Tartean konpainiak Alderray istorio kontalariaren ibilerak kontatuko ditu

Urriaren 29an izango da emanaldia, 19:00etan; sarrerak 6 edo 8 euroan erosi ahalko dira

ANTZERKIA • A. M.

Alderray (Mikel Martínez) izen bereko obraren protagonista da. Istorio kontalaria da eta "pertsonaia ehiztaritzat" ere badu bere burua. Bizitza osoan horretan aritu da, kalerik kale, pertsonaia berezien bila, kontatzea merezi duten istorioak jaso, eta entzun gura dituenari kontatzeko gero. Bizitza osoa zeregin horretan "askatasun osoz" eman eta gero, askatasun hori "zama" bilakatu zaio. "Gaztaroa aspaldi joan zitzaion Alderrayri, eta orduko kemena galduta dauka. Orain askatasuna

eta bakardadea erabateko zama bihurtu zaizkio", diote Tartean konpainiatik. Puntu horretan dagoela, Morroia pertsonaia (Sandra Fernández Agirre) helduko da Alderrayren bizitzara. Alderrayren lanaren miresle, honen alboan ikasi gura ditu ofizioaren sekretuak. Eta horrek aldaketa dakar Alderrayren bizitzan. "Galdu egin du beste pertsonaia harrapatze gogoia, bere arima torturatzen duena baino ez du aurkitu gura", azaldu dute. Antzerkia narrazioen narrazio bat lez dago egituratuta egileen esanetan, eta kontakizun-

nak, itxura batean, independenteak dira. Martxoan estreinatu zuten *Alderray*, Bilboko Arriagan. Ordutik, hainbat emanaldi egin dute, Santurtzin, Iruñean, Gernikan eta Leioan, besteak beste. Berrizko emanaldiaz gainera, Zornotzan ere egingo dute, 2023ko martxoan.

Antzerki konpainia betetera da Tartean, eta baita berau osatzen duten kideak ere. Mikel Martínezek ez ezik, Patxo Telleriak ere parte hartu du lan honetan; berak idatzi du gidoia eta zuzendu du obra.

DA! PRO topaketa abenduaren 5ean egingo dute

Durango Azokak antolatzen duen sortzaile eta programatzaileen arteko topaketa profesionala da DA! PRO

DURANGOKO AZOKA • A. M.

Laugarren urtez, Durango Azokak DA! PRO sortzaile eta programatzaileen arteko topagune profesionala antolatuko du. Abenduaren 5ean egingo dute aurtengoa, Durango Azoka hasi baino egun bi lehenago. Gune bitan egingo dute: Bizenta Mogel bibliotekan eta San Agustin kulturgunean. Musikariek eta beste-lako sortzaileek euren proiektu berriak aurkeztu ahal izango

dituzte teknikari eta profesionalen artean. Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarte koordina-tzailearen berbetan, estrategikoa da Azokarako topagunea. "Kulturaren plaza profesionalentzako topagunea izatea da gure helburua, etorkizunean proiektu berriak sortzea bultzatzeko". Durango Azokagaz gainera, BBK-k, Musika Bulegoak, Bizenta Mogel bibliotekak eta Berbaro elkarteak parte hartuko dute proiektu honetan.



BBK-ko, Musika Bulegoko, Bizenta Mogeletako, Berbaro elkarte eta Gerediaga kideak.

Gai librean

Isilaraziak X

Emakume artista baten izena esatea eskatzen badizut, ziur nago lehenengo artean Frida Kahlo dagoela. Zutabe hauek idazten hasi nintzanean, ezagunak ez ziren emakumei buruz hitz egin nahi nuen, urteetan edo mendeetan zehar isilaraziak izan diren emakumei ahotsa eman. Baina gaurkoan, askotan entzun dugun emakume bati buruz, eta bere lanari buruz hitz egin nahi dizuet. Izan ere, uste dut, askotan entzun dugula bere izena eta maiz ikusi dugula bere aurpegia, baina benetan ba al dakigu nor izan zen Frida Kahlo? Edo zer egin zuen artista honek? Bere aurpegia eta bere izena marka bat bihurtu dira azken urteetan. Ez da arraroa kaletik zoazela, Fridaren aurpegia estanpatua duen kamiseta baten jabearekin topatzea, edo poltsoak, galtzerdiak, kuxinak, katiluak... edozer objektu motatan ikusten dugu mexikarra. Gainera, errepresentatzen dena ez



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa

da zertan Fridaren aurpegia izan, buruko lore-diadema bat edo bekain bakar bat ikustearekin, bera dela ulertzea heldu garelako. Izan ere, Frida Kahlo marka bat bihurtu da.

Honek artistaren izena ezagutzea ekarri du, baina hau lehenengo pausoa besterik ez da. Ez gara horretan geratu behar. Izenaren bitartez identifikatzea lortzen dugu, baina ez bere ahotsa entzutea, eta, beraz, benetan ezagutzea.

Hasierako galderara bueltatuko naiz eta emakume artista baten izenaz galde-tzeaz gain, artistaren (kasu honetan Kahlorena) artelan baten izenburua esatea eskatzen badizuet? Zenbatek erantzun diezaioke galdera honi?

Artistaren irudia kamiseta batean eramateagatik, ez diogu ahotsik ematen, ez dugu benetan ezagutzen. Marketing-a besterik ez da, sistema kapitalista honen beste "seme" bat. Ai, Fridak jakingo balu! Bera baino komunistagorik ez dakit ezagutzen dudana. Zer esango zuen!

Fridaren lanak askotan surrealismoarekin elkartu nahi izan dira, baina berak surrealismoa ulertzen ez zuela esaten zuen, eta Breton bera (surrealismoaren aita izan zena) ez zuen aguantatzen. Kahlok bere lanetan bere bizitza adierazten du, bere egunerokoa irakurtzea bezalakoa da bere artelanak ikustea. Izan zuen bizitza gogorra eta tristeza adierazten dute kolorez betetako koadroek. Gainera, historian lehen aldiz, emakumeekin lotutako gaiak errepresentatu zituen, hala nola abortuak, edoskitzea, amaren maitasuna (edo maitasun eza), gizonezkoengandik jasotako tratu txarrak, etab. Alde horretatik, aurrerakaria izan zen. Garrantzi handiko artista dela izan behar dugu argi, eta bere bizitzari buruzko libururen bat irakurtzea gomendatzen dizuet; bere aurpegia den marka bat jantzita eramatea baino omenaldi hobea izango da artista handi honentzat.



Uxue Guezala
Barrainkua

Bizkerre Klubeko
atzelaria

BERRIZ | 2003

“Nire dohain nagusia aireko jokoa dela uste dut; horrez gainera, atzelari irmoa naizela esango nuke”

19 urteaz, Uxue Guezala Athleticen egiturara batu da aurtan. Lehenengo denboraldia 2.RFEF mailan dabilen Getxoko Bizkerren taldean egingo du, Athleticetik utzita

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Berriz eta Ezkurdi futbol klubetan eman zituen lehenengo urratsak. Ondoren, kadete adina zuenetik, Eibarren ibili da. Aurtan Athleticetik fitxatu du, hiru urterako, eta lehenengo denboraldia 2. RFEF mailako Bizkerre taldean jokatzen dabil, utzita. Talde igo berria izateko, bikain dabil Getxoko taldea. Bost jardunaldiren ondoren, oraindino ez dute partidurik galdu.

Zelan sortu zitzaizun Athleticera batzeko aukera?

Eibarren urte dezente neramatzan eta haize berriak behar nituela sentitzen nuen. Orduan Athleticetik deitu zidaten, klubera batzeko proposamenagaz. Hiru urterako sinatu dut. Lehe-

nengo urtea Bizkerren utzita jokatzea da plana, eta bigarrenetik aurrera Athleticera bueltatzea. **Zelan taldekide berriekin?**

Lehenengo egunean urduri nengo, baina denek besoak zabalik hartu ninduten. Oso esker oneko nago, gauzak asko erraztu dizkidatelako.

Ezagutzen zenuen jokalariren bat?

Nigaz batera Malen Olañeta ermuarra ere etorri da Eibarretik. Urte askoan elkarregaz egon gara eta hasieran lasaigarria izan zen alboan aurpegi ezagunen bat izatea.

Olañeta ondoan duzu, baina lagun asko utzi duzu Eibarren. Gogorra izan da agurra?

Bai, kostatu egiten da. Une ahaztezinak bizi izan ditut han, eta

beti gogoratuko ditut. Esaterako, debuteko partidua. Orain aste batzuk Irati Martinek [ANBOTOn elkarrizketatu genuen] esan zizun moduan egun hori izterrean tatuatu genuen Marta Lopez de Gereñu, Uxue Iparragirre, Malen

“Zoritxarrez, oraindino ezin izan dut jokatu, lesio bategatik. Orain guztiz errekueratuta eta debutatzeko gogotsu nago”

Olañeta, Nahia Larrinaga eta Eider Egañagaz batera. Data hori beti berezia izango da guretzat. **Bost jardunaldi joan dira liga hasi zenetik. Arlo pertsonalean, zelan joan dira?**

Zoritxarrez, oraindino ezin izan dut jokatu, denboraldiaurreko lehenengo astean lesionatu egin nintzen eta. Zaintiratu bat. Momentu gogorrak izan ziren niretzat, baina taldekideek asko lagundu zidaten eta aurrera egin beharra zegoen. Orain guztiz errekueratuta eta Bizkerregaz debutatzeko gogotsu nago.

Zentral postuan lehia handia dago taldean?

Bai, nigandik aparte beste zentral

bi daude. Bata taldeko kapitaina da eta bestea sekulako atzelaria! Erronka lez hartzen dut. Gaztea naiz eta niretzat erreferenteak dira, eurenandik ikasi egin gura dut.

Zelan definituko zenuke zeure burua defentsa lez?

Nire dohain nagusia aireko jokoa dela uste dut. Buruz ondo moldatzen naiz. Horrez gainera, atzelari irmoa naizela esango nuke: jokalaria edo baloia, bietako bat pasatuko da, baina biak ez. Hobetu beharrekoetan, baloiaz irteko momentua.

Normalean buruz abilak zaretenok erasoan ere izaten duzue zeresana, faltetan eta kornernetan. Zelan moldatzen zara egoera horietan?

Ondo moldatzen naiz. Nire ibilbidean sartu ditudan golak buruz izan dira, faltak eta kornerrak errematatzeraz igota. Eibarren bost gol sartu ditut.

Futbolera zaletasuna familiarengandik datorkizu?

Ama futbolzalea da eta aitak urte askoan jokatu zuen Berriz futbol klubean. Nire ibilbidean asko lagundu didate. Niretzat sostengu bat izan dira.

Bizkerre talde igo berria da eta ezin hobeto hasi du denboraldia. Bost jardunalditan, hiru garaipen eta porrotik ez. Saillapenean, laugarren. Itxaroten zenuen horrelakorik?

Liga hasierak denok harritu gaitu! Beste taldeei erreparatu eta

Real Madrid B, Atletico Madrid B... ikusten genituen, klub bote-retsuetako taldeak. Gu partiduz partidu joan gara, aurrerago begiratu barik. Oraingoz funtzionatu digu eta taldearen dinamika oso ona da.

“Liga hasierak denok harritu gaitu! Partiduz partidu joan gara, oraingoz funtzionatu digu eta taldearen dinamika oso ona da”

Bost partidutan, hiru gol alde eta bat ere ez kontra. Datu bi hauetatik, zer ondorioztatu dezakegu?

Sarturiko gol bakoitzak hiru puntu balio izan dituela! (barrez). Atea hutsean mantenduta, aukera bat asmatzea nahikoa izan daiteke partidua irabazteko.

Normalean, futbol klubetan gizonen taldeak emakumeenak baino gehiago izaten dira, baina Bizkerren kontrakoa gertatzen da.

Bai, nesken hemeretzi talde dardela uste dut, eta mutilenak bi. Getxora entrenatzeraz noan bakoitzean neskak baino ez ditut ikusten entrenatzen. Hasieran harritu egin ninduen. Emakumeen futbolak indar handia du Bizkerre klubean.

Ugarte-Ziarrusta, Ipar Euskal Herriko zirkuituan dabilzanen arteko finala

Gaur arratsaldean Kepa Arroitauregiren III. Memorialeko finalak jokatu dituzte Tornosolon



Ekhi Ziarrusta —eskuman— eta Santamaria Kepa Arroitauregi txapelketako finalerdian.

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Hilabeteko lehiaren ondoren, gaur 18:00etan erabakiko dituzte Kepa Arroitauregiren III. Memorialeko txapelketako finala. Paleta goman final bi jokatu dira, eta esku pilotan bat.

Esku pilotan, buruz buru, Ekhi Ziarrusta eta Inhar Ugartek neurtuko dituzte indarrak. Biak Ipar Euskal Herriko zirkuituan dabilza, goi mailako pilotariak dira eta gaur egun buruz buru ikusi daitekeen partidurik onenetarikoak da euren artekoak. Ipar Euskal Herriaren elkarregegi jokatu izan dute sarritan, binaka, baina oraingoa

bata besteari kontra arituko dira. Txapelketa mailakatu egin dutenez, Ugarte zuzenean sailkatu da finalerako. Ziarrustak 40-13 menderatu zuen Santamaria, emoziorik bako finalerdian.

Arrieta, paletako finalean

Gizonen paleta gomako finaleko protagonista bat eskualdekoa da: Durangon bizi den Iñigo Arrieta

Nesken paletan, Espinalek eta Gorostiagak Galdosen eta Mendizabalen kontra jokatu dute finala

gasteiztarrak Pablosegatz osatuko du bikotea; Larrarte eta Mutuberria bikote gipuzkoarraren aurka jokatu dute. Arrietak eta Pablosek latz sufritu zuten finalerdietan Oroz-Bombin bikoteari irabazteko: 30-26.

Azkenik, emakumeen paletan, Amaia Espinal eta Paula Gorostiaga bikote nafarrak Maider Mendizabal eta Leire Galdos bikote gipuzkoarra izango du aurkari. Azken hauek euren esperientzia handia baliatzen ahaleginduko dira oso bikote gaztearen kontrako finalean, baina ez dago faborito argirik.

Aurten ezin izan dute Elorrioko ziklo-krosa antolatu, baina 2023an berriro bueltatuko dira

Antolatzaileek diotenez, lekua falta izan zaie ibilbidea egiteko



Aurreko edizio bateko argazkia.

ZIKLO-KROSA • J.D.

Elorrioko nazioarteko ziklo-krosa urriaren 12an egitekoa zen, baina aurten ezin izan dute antolatu. Lasterketako antolatzaileetarikoa den Joseba Gorostizaren esanetan, zirkuitua egiteko "leku falta" izan da arrazoia. "Udalak skate parkea egin gura zuen tokian lur kutsatua agertu da, eta orain katak egiten dabilza skate gunea non egin aztertzeko, horien artean zirkuitua egiten duten lurretan. Beraz, leku gutxiago izan dugu ibilbidea egiteko. Gehienez 800 metroko ibilbidea egiteko aukera genuen eta ziklo-kros probetakoak 2,3 eta 2,7 kilometrorara arteko zir-

kuituak izaten dira", adierazi du. Hala ere, aurtengoa "parentesi" bat dela adierazi du, hurrengo urtean berriro bueltatzeko asmoa dutela. "Ikusiko dugu skate parkeak ibilbideari eragiten dion eta hurrengo urtera begira apur bat moldatu behar dugun ala ez", dio Gorostizak.

Ziklo-krosa ez antolatzea azken orduko erabakia izan da. Aurtengo aldia "prest" zutenez, Euskadiko federazioagaz berba egin eta Ortuellako proba eraman zuten Elorrioren erabiltzekoaren azpiegitura osoa. Han lehiatu zen proba, orain asteburu bi.

Jokaldia

Badator krosa

Badira hainbat urte ez dudala krosa behar bezala prestatu eta ez dudala krosaz behar bezala disfrutatu. Pandemia dela, lesioak edo osasun arazoak direla... Eta aurten badut krosaren giroaz benetan disfrutatzeko gogo.

Akordatzeko naiz txikitant galdetzen zidatela: zer duzu gustukoago, krosa ala pista? Ustedut hasieran krosa esaten nuela, gazteagotan asko gustatzen zitzaidan krosa, baina denborarekin pistan gehiago zentratzen hasi nintzen eta gehiago gustatzen hasi zitzaidan. Bi modalitate hauek oso desberdinak direla esango nuke. Egia da bietan arinetan egitea dela kontua, baina, egia esan, giroa oso desberdina izaten



June Arbeo Sarriugarte
Korrikalaria

Txikitant askotan galdetzen zidaten: zer duzu gustukoago, krosa ala pista? Ustedut hasieran krosa esaten nuela

Publikoa gertuago sentitzen da krosean, jende askoz gehiago egoten da zirkuitoan zehar animatzen

da. Publikoa hurbilago sentitzen da krosean, jende askoz gehiago egoten da zirkuituan zehar animatzen, eta korrikalariok igartzen dugu hori.

Bestalde, lortu beharreko errendimendua eta daukagun presioa ere ez da berdina. Pistan, segundo gutxiren kontua izaten da dena, eta askotan horrek frustrazioa sortu lezake. Krosean ez dago erlojurik, presioa askoz txikiagoa da eta ez duzu marka jakin bat lortzeko lehiatu behar. Atletontzat, edo behintzat gehienontzat, krosa ez da denboraldiko helburu nagusia izaten, udaberriaren eta udan pistako lasterketak izaten baitira garrantzitsuenak, baina ondo etortzen da gure prestakuntzarako. Gainera, polita da horrelako giroan lehiatzea. Jendez, giroz eta musikaz betetako igande goizak politikak izaten dira. Beraz, aurten jada hasi naiz kros hauetara joateko prestatzen, eta espero dut gazteagotan bezala belarrietaraino lokatze bezala bukatzeaz disfrutatzea.

Durungaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

> anboto

Botikak

BARIKUA, 28 · 09:00-09:00

MUGICA
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 29 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

BAZAN DIAZ
URIBARRI 5 - DURANGO

UNAMUNZAGA
MURUETATORRE 2C - DURANGO

CAMPILLO
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

SARRIA
SASIKOA 17, DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

FARMAZIA MATIENA
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI SAN
PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE SAN
MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ, JUAN
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO LUIS
URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 30 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 31 · 09:00-09:00

IRIGOIEN
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 1 · 09:00-09:00

DE DIEGO
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 2 09:00-09:00

UNAMUNZAGA
MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 3 · 09:00-09:00

CAMPILLO
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO
LUIS URRERGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.




Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Urriaren 28an 8 urte egingo dauz gure printzesak. Zorionak etxekeun partez!



Zorionak, **Jontxu!** Zure kuadrillakuen partez.



Zorionak, **Haizea!** Jarraitu hain alai ta zoriontsu. Muxu potolo bat Donostiatik Malenen partez!



Urriaren 23an **Juanita Zalbiden** urtegunen izen da. Zorionak, amama! Besarkada handi bat!



Urriaren 22an **Karmelo** eta **Mila** ezkondu zirela urteak. Zorionak, bikote! Etxeko danan partez!



Zorionak, bikote. **Aroa Pujanak** 7 urte egin zituen urriaren 20an, eta **Aitorrek** ere urteak egiten ditu 29an. Zorionak bioi zuen familiaren partez! Musu handi bat eta ea laster ospatzen dugun.



Zorionak, potxola! Oso oso ondo pasa zure urteguna familia eta lagunekin batera. Askok maite zaitugu. Muxu potolo asko!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 26° / 19° ☁

ASTELEHENA ↓ 21° / 13° ☁

EGUAZTENA ↓ 18° / 1° ☁

DOMEKA ↓ 21° / 13° ☁

MARTITZENA ↓ 23° / 12° ☁

EGUENA ↓ 18° / 9° ☁

IRAKUR-LAGUNAK 2022 2023

GAIDUTA SENTITZEN ZARA ZURE HAUR EDO IKASLEAREN ZAT LIBURU BAT HAUTATU EDO GOMENDATZEKO ORDUAN? EZ DAKIZU IRAKURZALETASUNA NOLA BULTZATU?



ORDUTEGIA
ASTEAZKENA 18:30-20:00

SAIOAK
2022-11-16 · 2022-12-14 · 2023-01-11 · 2023-02-08 · 2023-03-15

DINAMIZATZAILEA SAROA BIKANDI



IZEN-EMATEA
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus
946 872 726

Sormenezko idazketa tailerra

Yolanda Arrieta (euskaraz)
Rosa Pérez (gaztelera)

Literatur eta sormen adierazpen ezberdinak taldean ezagutzeko tailerra

Hamabostero : Astelehenak 18:00 - 20:00
5 saio, azaroa eta urtarrila bitartean



Iurreta
Elezateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA

Izen-ematea:
946812726 - bibliotekakoekintzak@iurreta.eus
Bidebarrieta, 4 - 48215 IURRETA (Bizkaia)



“Pole Dance-ak joko handia ematen du; gainera, beti dago zer ikasi”

Garazi Abraldesek Kirol Pole Dance-a eta Exotikoa egiten ditu eta, nabarmendu duenez, adin, identitate eta gorputz disidente guztientzat aproposa den jarduera da



Garazi Abraldes
Azkorbebeitia
Pole Dance-a praktikatzen du
DURANGO | 1999

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Garai Abraldes orain lau urte hasi zen Pole Dance egiten. Egun batetik bestera ekin zion, kasualitatez. Bilbo-ko akademia batean ibili da, eskolak hartzen zein ematen. Orain, Historia ikasketak hasi ditu Gasteizen.

Publiko orokorrarentzat ezezaguna da Pole Dance-a. Zelan definituko zenuke?

Pole Dance-a barra bertikal batez egin daitezkeen irudi, mugimendu eta jolasek osatzen dute. Mugarik jarri barik. Irudi akrobatikoak egin daitezke, biraketak, dantza bakarrik... indar nahikoa erabiliz barra mugituz jardun daiteke. Joko handia ematen du; gainera, beti

dago zer ikasi. Nik neuk kirol lez hartzen dut, baina hainbat aldaera dago: kirol kutsu handiagoagaz, artistikoagoa, exotikoagoa... eta arlo bakoitzean ere asko dira aldaerak. Pole Dance-a geroago eta ezagunago den arren, batez ere pelikulen bitartez jasoriko irudia dugu buruan, eta ez da irudi erreala. Oso abaniko zabala da.

Exijentzia fisiko handia eskatzen du?

Bai, baina zeretik hasi daiteke eta beti egiten dira aurrerapausoak; bakoitzak bere erritmora, baina lorpenak hor daude. Pole Dance-a oso konpletoa da. Indarra behar da gorputz osoan, malgutasuna, eta jarrera ere garrantzitsua da. Neurri batean, praktika artistikoa

izanik, egindako guztia polito egiten ahalegindu behar da. Hasieran ezinezkoa dela pentsatu arren, hobetzea eta helburuak betetzea lortu daiteke, horrexegaitik harrapatzen zaitu.

Batez ere, pelikulen bitartez jaso dugun irudia dugu gogoan, eta ez da irudi erreala. Abanikoa oso zabala da

Ez da etxean praktikatu daitekeen kirola, ezta?

Bai, askok etxean dute barra bertikala. Ez da nire kasua, etxeko

sabaiak ez dit aukerarik ematen. Urteotan Bilbon ibili naiz, baina orain Gasteizen ematen dut aste osoa, eta han praktikatzeko leku bat topatu gura dut.

Edonork egin dezake Pole Dance-a?

Bai. Umeei, gazteei, helduei eta ilea urdindutakoei ere eman dizkiet eskolak. Aurreritziak baztertuz, aproposa da adin, identitate eta gorputz disidente guztientzat, normatibo eta ez normatiboentzat. Eta zalantzarik barik gomendatuko nuke, beldurrik barik. Norberak plazeretik jarritako erronka txikiak betetzeko, indarra eta malgutasuna irabazteko. Gainera, nik neuk laguntasun eta elkarzaintza handia aurkitu dut.

Ahizpatasun eta laguntasun handia topatu dut Pole Dance-a egiterakoan; oso giro polita aurkitu dut

Zein ekarpen egin dizu?

Kirola egiteak beti egin dit ondo. Gainera, beti da aberasgarria helburuak bete dituzula ikustea. Entrenamenduetan egundoko hartu-emanak sortzen dira, eta deneriko gorputz motak ikusi daitezke, denak berdina egiten. Ahizpatasun eta laguntasun handia, eta oso giro polita topatu ditut.

Uste duzu oraindino ere Pole Dance-arekiko aurreritzi asko dagoela?

Striper edo gogó-en irudiagaz lotzen da Pole Dance-a. Horietariko batzuek barra erabiltzen dute euren ikuskizunetan, argi dago, baina horrek ez du esan gura berdina direnik; gauza desberdin bi dira. Hala ere, hori baino gehiago stripe-rra biktimizatzean ikusten dut arzoa, horiekiko dugun irudian eta ez Pole Dance horregaz nahastean. Errora jo beharko genuke.

Pole Dance-an hasi gura duenarentzat gomendio bat?

Aurretik mugarik ez ipintzea norbere buruari. Lasai hartzea eta norberarengan konfiantza izatea. Beti ere gorputzari entzunez, ekin izatea, eta gozatzea. Batzuetan lehenengoan aterako da eta besteetan hamaikagarrean.

Lau-hortza

Karolina Suarez Borges
Kazetaria



Teilatuaeren adierak

Atxondoko zazpi herritar etxetik bota ditu udalak. Egoera larrian dagoenez, Axpeko aterpetxea itxita mantentzea erabaki du, “betiere bertan bizi daitezkeen pertsonen segurtasuna zainduz”. Ordea, kale gorrian lo egitera behartuta ikusi dute euren burua. Bada, zaintzak, nirean, bestelako esanahia du. Eskerrak berdin aditzen dutela Atxondo Harrera Herriko lagunek. Udaletxe azpian kanpamentua muntatu dute harrera etxe gisara, zaintza-txandak tarteko.

Durango ere izan zen Atxondokoaren gobernu homologoa. Antzera, utzikeria estandarte izanda, erortzeke zeuden hainbat eraikin publiko mantendu zituen urte luzez. Baina iritsi zen aldaketa. Nahiz eta eraikin zaharrok hustu behar izan, Piondo Etxeko eragileek badute teilatua, eta udaltzaingoa ez zen gaizki egon Plateruena antzoki pareko obra-etxoletan.

Gura izanez gero, badira aukerak. Baina arazo bat dute Atxondoko agintariek: zazpiak pertsona migratzaileak dira. Eskuak garbitzeko asmotan, aitaren atea jo du udalak eta Jaurlaritzarekin etorkinak birkokatzea “adostu” du. Profil pertsonalen arabera banatuko dituzte. Ez dute beraiekin hitz egin, ez dakite zer den nahi dutena. Anbotori, ordea, azaldu diote: bota dituztenek ez dakite zer den kalean lo egitea, eta Atxondon bizitzen jarraitu nahi dute. Jatorria edozein izanda, atxondarrak ere badira.

Aldiz, euren migratzaile izaera betikotu nahi du gobernuak. Hutsetik hastera behartu nahi dituzte behin eta berriro; bizitza prekariora kondanatu. Jadanik kondena horri lotuak ez badaude. Bederen, herri honetan bada zauriak sendatzeko prest denik.



ULMA

Ontziratze-soluzioen diseinu eta fabrikazioan espezializatutako enpresa hainbat lanpostutara apuntatu nahi duten pertsonen bila ari da:

Ingeniaritza Elektronikoa

Mekanizatua

Ingeniaritza Mekanikoa

Galdaragintza

Muntaketa



Gehiago jakin nahi duzu?
Eskaneatu QR kodea!

